

Abenduaren 16ko 11/2005 Foru-Araua, inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen foru zerbitzu publikoa arautzen duena.

(2005eko abenduaren 26ko BAO)

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 2005.eko abenduaren 16ko osoko bilkuran, abenduaren 16ko 11/2005 Foru-Araua, inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen foru zerbitzu publikoa arautzen duena, onetsi dutela eta nik neuk aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dudala jakinarazten dut, aplikatu zaien beharra duten hiritar, norbanako eta agintari guztiek zaindu eta zainaraz dezaten.

ABENDUAREN 16KO 11/2005 FORU-ARAU, INOREN LAGUNTZA BEHAR DUTEN ADINEKOENTZAKO EGOITZEN FORU ZERBITZU PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA.

HITZAURREA

Botere publikoen funtsezko ardura da bere lurraldean dauden pertsona guztien beharrianak asetzeari, antolamendu juridikoak hainbat gaitan onartzen dizkien eskumenekin bat etorri. Hiritarren ongizate hau lortu nahia izaera orokorreko eskumenen egikaritzan zein, hiritarrentzako nabarmenago eta hautemateko hobeto, hiritarren beharrian zehatzak eta, batzuetan, premiazkoak betetzeko diren jardura eta politika zehatzen bidez gauzatzen da. Azken arlo honetan kokatzen dira Erkidego Osorako Erakundeek emandako arauak, hala nola, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legea.

Eusko Legebiltzarren jardura arauemaileak, Eusko Jaurlaritzak arlo honetan jardura publikoaren zenbait aspektu arautzeko eman dituen erregelamenduzko arauekin batera (bereziki 64/2004 Dekretua, gizarte zerbitzuen erabilzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna onartu zuena), derrigorrezko eta beharrezko garapena izan behar du lurralde historikoen esku-hartzean, politika horiek abian jarriz, lurralde horiek zerbitzugintzako jardura honen administrazio erantzulea eta protagonista nagusia direlarik.

Gizarte zerbitzuak gizarte eskaera handiago eta konplexuago baten menpe daude, gero eta gehiago, oraingoari doakionez, biztanleriaren bizi-itxaropenaren igoerak, honen ondorio guztiekin, eragindako eskaeraren menpe, hain zuzen. Ez da bakarrik gizarte zerbitzuen eskaeraren hazkunde kuantitatibo bat, kualitatiboa ere bada, azken hau egoera eta laguntza eskaera oso ezberdinak asetzeko beharra bezala ulertuta. Biztanleriaren zahartzeak botere publikoaren gero eta erantzun prestatuagoa eta indartsuagoa behar du eta honek,aldi berean, esan nahi du politika gizarte eskaera aldakorren arabera egokitu behar dela etengabe. Eta beharrian honi erantzuten dio, izan ere, foru arau honek, gizarte zerbitzuen eremu zabalaren barruan gai zehatz bat arautuz, hau da, inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitza-zerbitzu publiko foralaren araubide juridikoa arautuz.

Foru Aldundiaren politika, arlo honetan, inoren laguntza behar duten adinekoen emandako laguntzen bidez garatu da orain arte, laguntza hauek, dagokion pertsonaren beharrianen arabera, iraunkorrak edo aldi baterakoak izan direlarik. Sistema hori berriro aztertu behar da, osorik, eta horretarako ezinbestekoa da arautegi berri bat ezartzea. Foru Aldundiak inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzei dagokienez daukan politikak banakako laguntzen eredia gairatu eta esku-hartze eskema ezberdin bati erantzuten dion gizarte politika bat izango duen sistemarentz jo behar du. Sistema berri honek ez du eraginik inoren laguntza behar duten adinekoen gizarte eskubideak arautzen dituen arautegian; politika gauzatzeko era aldatzea ekarriko du soilik, helburua esku-hartze publikoa areagotzea delarik, zerbitzu hau ematean erantzukizun zuzena bereganatuta, baina norbanakoen esku-hartzea, euren kabuz edo

administrazioaren bidez, baztertu gabe, administrazio arloko kontratazioa eta gizarte zerbitzuen prestazioa arautzen dituzten arauekin bat etorriz.

Foru arau honek sei titulu ditu, lehenengoa zerbitzuari ezarri ahal zaizkion xedapen orokorreki buruzkoa izanik. Bere helburua nabaria da, inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitza-zerbitzu publiko foralaren araubide juridikoa ezartzea. Zerbitzu hau antolamendu juridikoak berau ematean eskatzen dituen printzipioak betetz eman nahi da, bereziki norbanakoaren behar bat betetzeko den zerbitzu publiko bezala dituen ezaugarriak aintzat hartuta, baina, gainera, bektoretzat pertsonen duintasunarekiko begirunea, kohesio soziala lortzea, elkartasuna, eta, batzuetan, zerbitzuaren finantzaketan ardura partekatua dituen politika bate isla dela kontuan hartuta. Pertsona batek inoren laguntza behar duela dagokien gizarte zerbitzuek zehaztuko dute, benetan egoera horretan dauden pertsonen emateko kalifikazio hori. Objektibotasunez, gardentasunez eta diskriminaziorik egin gabe zehaztu beharko da. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak izango du egoitza-zerbitzu foralaren eskumena, eta sail horrek, bere jarduerak egikaritzean, legezkoatasunaren printzipioa eta gai honetan eskumena daukaten beste herri administrazio batzuekiko lankidetzaren printzipioa ardatz hartuta jardungo du.

Arauren bigarren titulua egoitzen foru sarea arautzen du, hori kudeatzeko arauak bilduz. Egoitzen foru sare honen barruan, foru titulartasuneko zentzuek gain, beste herri administrazio batzuekin hitzartutako zentroak eta entitate pribatuekin kontratatutako zentroak daude. Egoitzen foru sarea osatzen duten zentzuen tipologia anitza izan daiteke, egoitza mota bakoitzari ezarri ahal zaizkion arauen arabera, herri administrazioei dagokienez kasu bakoitzean ezargarri den arautegi orokorrera jo behar delarik. Norbanakoekin kontratatutako egoitzei dagokienez, egoitzen titulartasuna irabazteko asmorik gabeko entitateen zein merkataritzako sozietateen esku egon daiteke. Foru Aldundiaren esku-hartzea esparru honetan dagokien arautegian ezarrita dauden tresnen eta kontratatutako eren bidez gauzatu ahal izango da.

Zerbitzu-ematea hirugarren tituluan arautu da, erabiltzaileei onartu behar zaizkien estatusa eta eskubideak kontuan hartuta, egoitza-zerbitzu foralera sartzeko baldintzetatik hasita. Araupetze honek Erkidegoko Zuzenbidetik eratorritako betekizunak betetzen ditu, unibertsalizazio du helburu eta diru-sarrerara gutxiago dituzten pertsonen aldeko diskriminazio positiboaren printzipioa du abiapuntu. Zerbitzua erabiltzen duten pertsonen eskubide eta betebeharrak dagokienez, arloko beste arautegi batzuetan jasota dauden bezala jaso dira, arrazoi sistematiakoak eta araua bera ulertzeko arrazoiak direla medio. Horiekin batera zerbitzuaren jardunbideak eta ezaugarriak eragindako betebeharrak ezarri dira, autoantolaketaren eskumenen barruan sartzen direnak. Azken aspektu honi dagokionez, zentzuetako egonaldi era ezberdinak, prestazioaren edukia eta ezaugarriak arautu izana nabarmendu behar da, zerbitzua ematerakoan esku-hartzeko langile espezializatuak eskatzen direla azpimarratu behar delarik.

Arauren alde berrienetarikoa bat egoitza-zerbitzu foralaren araubide ekonomikoaren arauketa juridikoa da; bertan erabiltzaileek zerbitzuaren finantzaketan erantzukizunaren zati bat bereganatzeko edo horretan parte hartzeko printzipioa ezarri da. Ezarriko den prezio publikoa diruz lagundu daiteke, Bizkaiko Foru Aldundiak horretarako atontzen duen arautegian ezarritako aurreikuspenekin eta baldintzekin bat etorruta. Printzipio honekin arlo honetako foru politika arlo honetan eskumena daukaten beste herri administrazio

batzuek jarraitu duten bidearen arabera moldatu da. Finantzaketan egongo den parte hartze hau bideratzeko tresna zor-aitorpena izango da, dagokionean betearaztea eragin ahal izango duelarik.

Egoitza-zerbitzu publiko forala emateak administrazio antolaketa bat izan behar du, arauak arreta berezia eskaintzen dien organo bi nabarmentzen direlarik. Bata Zentzuen Batzorde Iraunkorra izango da, egoitza-zerbitzu forala osatzen duten zentro guztietako ordezkariak izango dituena eta topagune eta sektore horrek administrazioan parte hartzeko organoa izango dena. Garrantzi bereziko bigarren organoa Adinekoen Baloraziorako Batzorde Teknikoa izango da, kide anitzeko informazio-organoa bezala eratuko dena, adinekoak inoren laguntza behar dutela zehazteko erabakiak hartzerakoan eztabaidarako eta laguntza emateko organo bezala. Antolaketa arauak administrazio egitura moderno guztietan funtsezkoa den printzipioa hartzen dute kontuan, parte-hartzearen printzipioa, hain zuzen. Erabiltzaileen parte-hartze hau zerbitzuaren jardunbidean gauzatu da, interes berezia jarriz egoitzetan bertan gauza dadin. Horretarako iradokizun eta kexetarako sistema bat ezarri da arauan, hiritarraren esku-hartzea bermatzearekin batera, arlo honetan eskumena daukaten aldundiko administrazio-organoen ezberdinei bere eskumeneko gaiak ezagutu eta horietan esku-hartzeko aukera eman nahi dien sistema delarik.

Foru arauaren azken titulua egoitza-zerbitzu foralaren ikuskeraren arautzen du, bere araubide juridikoaren garrantziagatik eta zerbitzuaren prestazioarekiko kontrolak bere jardunbide egokian daukan eraginagatik gero eta arreta handiagoa jasotzen duten ahalmen publikoak baita, eta horrela erabiltzaileek kalitatezko zerbitzu publiko bat jasotzeko daukaten eskubidea bermatuko da. Ikuskeraren urteroko plan baten barruan jardun behar du, gainera, baita ez kasuistikaren

araberakoa ezta arbitrarioak ere izan behar ez diren gidalerro politikoak eta kudeaketakoak jarraitu behar ditu. Ikusatzeko ahalmena Erkidego Osorako Erakundeek emandako arautegi orokorra betez garatuko da, arlo horretan emandako foru

arautegia bere autoantolaketarako eskumenaren adierazpena izanik.

Foru arau honekin Foru Aldundiak sektorean esku-hartzeko modu berri bat hasiko da, partziala dena, arautzen duen xedeagatik, baina politika berri baterako bidea abiarazten duena, beste arau eta erabaki batzuetan jaso beharko dena, beti ere antolamendu juridikoak Bizkaiko Lurralde Historikoari onartzen dizkion eskumenen barruan.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua *Xedea.*

Foru arau honen xedea Bizkaiko Lurralde Historikoan, inoren laguntza behar duten adinekoei, egoitza-zerbitzu publiko forala emateko araubide juridikoa arautzea da.

2. Artikulua *Egoitza-zerbitzu foralari ezarri ahal zaizkion printzipioak.*

Egoitza-zerbitzu foralak erabiltzaileen eskubideak babesten direla bermatuko du eta bere zerbitzugintzako jarduera, erabiltzaileei laguntza zerbitzua emateko, honako printzipio orokor eta zehatzen arabera emango du:

a) Printzipio orokorrak.

1. Unibertsaltasuna.-Pertsona guztiak egoitza-zerbitzuetan sartzeko aukera daukatela bermatzean aurrera jotzea du helburutzat Foru Arau honek, berdintasun eta ekitate baldintzetan; baina honek ez du esan nahi zerbitzua doakoa izango denik.

2. Erantzukizun publikoa.-Egoitza-zerbitzu publiko forala erantzukizun publikoko zerbitzu bat da, zuzenean ematekoa, baliabide publikoen bidez edo ekimen pribatuarekin itundutako esku-hartzearen bidez zein beste herri administrazio batzuekin hitzartutakoaren bidez, eta behar bezala baimendutako entitateen jarduera askearekiko independentea izango da.

3. Ardura partekatua finantzaketan.-Bizkaiko Foru Aldundiaren esku-hartzea arlo honetan finantzaketaren ardura partekatuaren printzipioaren arabera egingo da; foru administrazioak eta zerbitzua erabiltzen dutenek dagozkien finantza baliabideak

jarriko dituzte, indarrean dagoen arautegian ezarritakoarekin bat etorritik.

4. Elebitasuna.-Egoitza-zerbitzu publiko foralak, zerbitzuak ematerakoan, herri administrazioen hizkuntza-araubidea arautzen duen arautegiko printzipioak bermatuko ditu, egoitza dagoeneko inguruaren egoera soziolinguistikoa eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak aintzat hartuta.

5. Kultur aniztasuna.-Egoitzen foru sarean sartutako zentroetako foru politikak erabiltzaileen ezaugarri kulturalak zainduko ditu, bereziki kontzientzia-askatasunari eta erlijio-askatasunari dagozkionak, beti ere zerbitzuaren funtzionamenduarekin bateragarriak badira eta giza eskubideak errespetatzen badituzte.

6. Kohesio soziala.-Egoitza-zerbitzu publiko forala kohesio sozialaren printzipioaren arabera emango da; horrela, bere antolaketan eta prestazioetan ez da jatorri sozial edo kultural ezberdina, ahalmen ekonomikoa edo politika, erlijio edo beste edozein arloko ideia ezberdintasunak direla medio, bereizketarik egingo. Egoitza-zerbitzu forala kohesio soziala lortzeko tresna bezala baliagarri izateko xedearekin emango da.

7. Koordinazioa.-Egoitza-zerbitzu publiko forala ematerakoan sektorean esku-hartzen duten gainerako administrazioekiko koordinazio printzipioa kontuan hartuta emango da, administrazio horiek osasun edo laguntza arlokoak izan, zein erkidegokoak, toki mailakoak edo jarduera honetako gainerako eragile aktiboak izan.

8. Gizarteratzea.-Egoitza-zerbitzu publiko foralak inoren laguntza behar duten adinekoen inguruko gaiekiko sentsibilizatuko du iritzi publikoa, biztanleriarekin, orokorrean, eta zerbitzua erabiltzen dutenekin edo eskatu dezaketenekin, informazio, prestakuntza eta prebentzio politika bat burutuz.

b) Erabiltzaileei laguntza emateko printzipio zehatzak.

1. Normalizazio printzipioa.-Egoiliarren bizimodua bere adineko pertsonengan ohikoak diren portaera eta jokaera-jarraibideetara, hiritarrentzat normaltzat jotzen direnetakoetara egokitu beharko da.

2. Autonomia printzipioa.-Egoiliarren autonomia ahal den guztia sustatu beharko da eta daukaten mendekotasun fisiko edo psikikoagatik behar duten babes-laguntza baino ez zaie emango.

3. Parte-hartzearen printzipioa.-Egoiliarrek egoitza-zentroetako jardueretan eta jardunbidean parte hartzea ahalik eta gehien sustatuko da.

4. Integrazio printzipioa.-Ahaleginak egingo dira egoiliarrek euren ohiko ingurunean mantentzeko, familia, gizarte, politika eta kultura arloko bere bizitza garatzeko aukera izan dezaten.

5. Osotasun printzipioa.-Osasun eta ongizate arloko arreta osoko eredu bat lortzera joko da, egoiliarren bizitzako aspektu ezberdinak barne hartuko dituen: osasun arlokoak, sozialak, psikologikoak, ingurumenekoak, bizikidetzakoak, kulturalak eta antzeko beste batzuk.

6. Profesionalizazio printzipioa. Egoitza-zerbitzu foralaren erantzuleek zein gainerako langileek euren lanbide mailari dagokion prestakuntza teknikoa eduki beharko dute, egoitza-zerbitzu forala emateko beharrezko eskakizunak betetzeko gaituko dituen.

7. Pertsonaren arabera laguntzaren printzipioa.-Egoiliar bakoitzaren beharrezko egokitutako laguntza pertsonalizatua eman behar da.

3. Artikulua *Zerbitzuaren jasotzaileak.*

Egoitza-zerbitzu foralaren jasotzaile izango dira 60 urte baino gehiagoko pertsonak, inoren laguntza behar dutela ezarri bada. Kalifikazio hori daukatela joko da, ezintasun fisiko edo psikiko iraunkor baten ondorioz, eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko bere kabuz baliatzeko laguntza handia behar duten adineko pertsonen kasuan.

4. Artikulua *Egoitza-zerbitzu foralaren atxikipena.*

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak izango du foru arau hau ezartzeko eskumena, eta sail hori izango da plangintza, antolaketa, zuzendaritza, kudeaketa eta kontrolerako eskumenen eta egoitza-zerbitzu publiko foralaren jardunbiderako beharrezkoak diren eskumen guztien titularrak.

5. Artikulua *Lankidetzaren beste herri administrazioekin.*

Egoitza-zerbitzu publiko forala ematerakoan, Gizarte Ekintza Sailak gizarte edota laguntza zerbitzuen arloan eskumena daukaten gainerako herri administrazioetako organoekin koordinatuta egikaritzeko dituen bere eskumenak eta horiekin lankidetzan aritzeko da inoren laguntza behar duten adinekoen zaintza-beharrezkoekin dagokienez laguntza hobeagoa emateko.

II. TITULUA **EGOITZEN FORU SAREA ETA HORREN KUDEAKETA**

6. Artikulua *Egoitzen foru sarea.*

Egoitza-zerbitzu forala Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritako inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen foru sarea sartutako zentroetan emango da. Egoitzen foru sarea sartutako zentroak honakoak izan daitezke:

- a) Foru titulartasuneko zentroak.
- b) Beste herri administrazioekin hitzartutako zentroak.
- c) Irabazteko asmorik gabeko entitate pribatuak, zentro kontratatuak.
- d) Irabazteko asmoko entitate pribatuak eta merkataritzako sozietateen zentro kontratatuak.
7. artikulua.-Foru titulartasuneko zentroak.

Foru titulartasuneko zentroak izango dira Bizkaiko Lurralde Historikoko foru sektore publikoari atxikita daudenak, zuzenean foru administrazioaren menpe daudenak, zein erakunde-administrazioa osatzen duten entitateetarako edozein atxikita daudenak, hau da:

- a) Zuzenbide Publikoak eraentzen dituen entitate instituzionalak, hau da, foru erakunde autonomiadunak
- b) Funtsean Zuzenbide Pribatuak eraentzen dituen erakunde instituzionalak; hauek bi motakoak izan daitezke: Zuzenbide Pribatuko Foru Erakunde Publikoak eta Foru Sozietate Publikoak.

8. Artikulua *Beste herri administrazioekin hitzartutako zentroak.*

Hitzartutako zentrotzat joko dira titulartasun publikoko egoitza-zerbitzuak, foru titulartasunekoak ez direnak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan daudenak, horiek kudeatzeko eta ustiatzeko zentroaren herri administrazio titularrak eta Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetzan hitzarmena sinatuta daudenak.

9. Artikulua *Zentro kontratatuak.*

Horrelakotzat joko dira egoitzen foru sarea herri administrazioen kontratuei buruzko legerian jasota dauden zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratu motetariko baten bidez sartu direnak.

10. Artikulua *Egoitza-zerbitzu forala kudeatzeko erak*

a) Foru Aldundiak zuzenean, bere baliabideekin, edo zeharka, beste Administrazio Publiko batzuekiko itunen bidez edo entitate pribatuekiko kontratu bidez -irabazteko asmorik gabeko entitateak izan zein merkataritzako sozietateak izan-, kudeatu ahal izango du inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitza-zerbitzu forala.

b) Egoitza-zerbitzu forala kudeatzeko kontratazioak ondoko modalitateetatik edozein hartuko du:

- 1) Emakida; horren bidez enpresaburuak bere gain eta galorde kudeatuko du zerbitzua.
- 2) Kudeaketa interesatua; hori dela bide, foru administrazioak eta enpresaburuak partaidetza izango dute zerbitzuaren ustiapenaren emaitzetan, kontratuan ezarritako proportzioan.
- 3) Ituna, dagokion zerbitzu publikoa osatzen duten prestazioen antzekoak burutu ohi dituen pertsona fisiko edo juridikoarekin.
- 4) Ekonomia mistoko sozietatea, foru administrazioak bertan parte hartuko duelarik, bere kabuz edo foru entitate publiko baten bidez, pertsona fisikoekin edo juridikoekin batera.

III. TITULUA. EGOITZA-ZERBITZU FORALA EMATEA.

11. Artikulua *Egoitzen foru zerbitzuan sartzea.*

1. Egoitza-zerbitzu foralean sartzeko adinekoak ondoren agertzen diren baldintzak bete beharko dituzte sartzeko, aldi berean:

a) Europar Batasuneko hiritartasuna edukitzea. Egoitza-zerbitzu foralaren onuradun izan daitezke ere, Europar Batasuneko hiritarrak izan gabe, legezko egoitza estatu espainiarrean onartuta daukatenak. Edonola ere, zerbitzu horren onuradun izan daitezke Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden errefuxiatuak edo herrigabeak.

b) Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein udalerritan erroldatuta egotea, foru arau honen arauak garatzeko foru dekretuetan zehazten denaren arabera.

c) Foru arau honen arauak garatzeko ematen diren foru dekretuetan zehaztutakoarekin bat etorriz, egindako osasun-balorazioaren ondorioz, inoren laguntza behar duen adinekotzat kalifikatua izatea.

2. Baliabide gutxiago eta alde ekonomikotik egoera ahulagoan dauden adinekoen aldeko diskriminazio positiboaren printzipioa kontuan hartuta, sartzeko baldintza bezala ezarri ahal izango da, foru arau honen arauak garatzeko foru dekretuetan ere, egoitza-plazaren kostu osoa ordaintzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea.

12. Artikulua *Egoitza-zerbitzu forala erabiltzen duten pertsonen eskubideak.*

1. Egoitza-zerbitzu forala erabiltzen dutenek hainbat eskubide izango dituzte:

- a) Euren duintasun pertsonala aintzat hartuko zaie.
- b) Intimitate pertsonala eta harremanena gordeko zaie.
- c) Euren datu pertsonalen konfidentzialtasuna gordeko zaie.
- d) Autonomi pertsonala errespetatuko zaie eguneroko bizitzako jardueretan.
- e) Informazioa eskuratu ahal izango dute.
- f) Bere arreta-beharrizanak ebaluatu eta laguntza-plan individualizatu bat egingo zaie, arazoizko denbora tartetean.
- g) Zerbitzuaren kalitatea bermatuko zaie.
- h) Parte hartu ahal izango dute.
- i) Bere eskubideak ezagutu eta defendatu ahal izango dituzte.
- j) Indarrean dagoen antolamendu juridikoak onartutako eskubide guztietarako, orokorrean.

2. Eskubide hauen interpretazioa Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren Gutunean eta iradokizun eta kexen araubidean ezarritakoarekin bat etorriz egingo da.

3. Egoitza-zerbitzu foralaren erabiltzaileei onartutako eskubideei kalte egiteak erantzukizuna eskatzeko dagokion administrazio-espedientea irekitzea eragingo du, indarrean dagoen arautegiarekin bat etorrira.

13. Artikulua *Egoitza-zerbitzu forala erabiltzen duten pertsonen betebeharrak.*

1. Egoitza-zerbitzu forala erabiltzen dutenek hainbat betebeharrak izango dituzte:

a) Beharrezkoa den informazioa, egiazkoa, ematea, zuzenean edo hori eskuratzeko baimena emanaz, laguntzari eta arlo teknikoari dagokienez egoitza zerbitzu egokia jasotzen dutela bermatzeko.

b) Barne araubideko arautegia betetzea.

- c) Bizikidetzarako arauak betetzea.
 - d) Gainerako egoiliarren eta zerbitzua ematen duten profesionalen eskubideak errespetatzea.
 - e) Instalazioak errespetatzea.
 - f) Zerbitzuen esku-hartzerako ezarritako datak errespetatzea.
 - g) Prestazioaren prezio publikoa onartzea eta, hala dagokionean, izan dezaken zorraren aseguramendua egitea.
 - h) Indarrean dagoen antolamendu juridikoak onartutako betebeharrak guztiak betetzea, orokorrean.
2. Betebeharrak hauen interpretazioa Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren Gutunean eta iradokizun eta kexen araubidean ezarritakoarekin bat etorritik egingo da.

14. Artikulua *Betebeharrak ez betetzea.*

Egoitza-zerbitzu forala erabiltzen dutenek euren betebeharrak betetzen ez badituzte, ezar daitezkeen arautegiarekin bat etorritik, dagokion administrazio espediente zabal daiteke, hala badagokio, zerbitzuan baja ematearen ondoretarako. Baja gertatzeko arrazoiak, heriotza edo uko egiteaz gain, honakoak izan daitezke:

- 1) Osasun arrazoiak, hala nola, kasu zehatzetan gaixotasun infekzio-kutsakorrek edo leku espezializatuan ematen den tratamendua behar dutenak izatea, portaeraren asaldura larriak izatea, hobekuntza izan dezaketen baliaezintasuna eragiten duten gaixotasunak izatea, edo egoitzan sartzeak izan ditzaketen eragin antiterapeutikoengatik edo arau ezarritako beste egoera batzuegatik.
- 2) Zerbitzua erabiltzaile izateak dakartzen eskakizun formalak eta ekonomikoak ez betetzea, hala nola, datuak ezkatzea, ondarearen gaineko ikerketa oztopatzea, norberaren ondasunak besterentzeko edo kargatzeko debekuen inguruko betebeharrak ez betetzea edo zor-aitorpena ez egitea edo prezio publikoa ez onartzea.
- 3) Gerora sartzeko betekizunen bat ez betetzea. Egoera hauek behar bezala garatuko dira, arau bidez.

15. Artikulua *Zerbitzua ematea.*

Egoitza-zerbitzua Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzeko den martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuan eta Adinekoentzako egoitzetako gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuan, edo horiek aldatu edo ordeztu dituen erkidegoko arautegian, mota honetako egoitza-zentroei buruz xedatutakoarekin bat etorritik emango da.

16. Artikulua *Egonaldi motak.*

Egoitza-plazak egonaldi iraunkorrean edo aldi baterako egonaldian bete ahal izango dira. Egonaldi iraunkortzat joko da mugarik eta eperik gabe egiten den sarrera. Aldi baterako egonalditzat joko da inoren laguntza behar duen adinekoa familiak edo zaindariak atsedean har dezaten sartzeko denean edo adinekoen arreta-beharrizanez eragindako beste xede bategatik sartzeko denean, denbora tarte mugatu baterako; arau ezarritako da aurrekoa.

17. Artikulua *Inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitza-zerbitzuaren gutxienezko baldintzak eta edukia.*

Inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitza-zerbitzu forala erabiltzen dutenek gutxienez honako prestazioak jasotzeko eskubidea izango dute:

1. Banakako laguntza integrala.-Egoiliar bakoitzari laguntza integrala eman behar zaio, hau da, osasun eta ongizateko eredu orokor bat lortzera joko da; eredu horrek alderdi guztiak jaso behar ditu, euren artean behar bezala koordinatuta: osasun arlokoak, sozialak, psikologikoak, ingurumenekoak, bizikidetzakoak, kulturalak eta antzeko beste batzuk.

Era berean, egoiliar bakoitzaren beharrezanetara egokitutako laguntza pertsonalizatua eskainiko da, laguntza integralerako plan pertsonalizatu bat eginez, erabiltzailearen ezintasunaren arabera.

2. Osasun-laguntza.-Egoitza-zerbitzu foralak osasun-laguntza jasotzea ahalbidetuko du, erabiltzaileek egindako aukera errespetatuz. Edonola ere, erabiltzaileek behar duten osasun-laguntza jasotzen dutela bermatuko da, norberaren bitartekoekin edo kanpokoekin.

3. Higienea.-Higiene-zerbitzua eskainiko zaie erabiltzaile guztiei, euren beharrezan kontuan hartuta eta euren intimitatea errespetatuz. Izan ere, laguntza emango zaie norbere garbitasunean eta zainketan.

4. Eguneroko jardueretara berregokitzea.-Mugitzeko, lanerako eta harremanetarako gaitasunak garatzea sustatzen duten jarduerak edo programak hartuko ditu barne, maila guztietan, hau da, taldean, familian, gizarte eta inguruan, ahalmen guztiak berreskuratzea lortzen ez bada ere, kasu bakoitzeko patologiaren barruan ahalmen horien murrizketa geldiarazteko helburuarekin. Edonola ere, narriadura kognitiboa daukaten pertsonentzako prebentzio eta tratamendurako programa bat egongo da.

5. Fisioterapia eta errehabilitazioa, mantentzeko eta suspertzeko ariketa fisikoak egiteko.

6. Laguntza psikologikoa.-Laguntza psikologikoa emango zaie hala behar duten erabiltzaileei.

7. Gizarte eta kultur dinamizazioa.-Programa honek aisia aktiborako edukia izango ditu, baita erabiltzaileen integrazioa eta mantentze aktiboa sustatuko duen parte hartzeko metodologia bat ere.

8. Gizarte-laguntza.-Gizarte-laguntza zerbitzua eskainiko zaie hala behar duten erabiltzaileei, euren beharrezan araber.

9. Erabiltzaileen senideei laguntza.-Familiei laguntza emango zaie, horien informazioa eta prestakuntza landuz, bereziki erabiltzailearekiko harreman hobea lortzeko.

10. Jantoki eta ikuztegi zerbitzua.-Jantoki zerbitzua elikadura zuzena gordez egingo da, erabiltzaileen beharrezan zehaztetara egokituz, kantitatea, kalitatea eta barietateari dagokienez. Beharrezkoa bada, eta osasun arloko langileen ikuskaritzapean, dieta bereziak prestatuko dira patologia bakoitzerako.

Zerbitzu hauen edukia Barne Araubideko Araudian sartu beharko da, egoitzen foru sarean sartutako zentro bakoitzean.

18. Artikulua *Barne Araubideko Araudia*

a) Barne Araubideko Araudia. Egoitzen foru sarean sartutako zentro guztiek Gizarte Ekintza Sailak onartutako Barne Araubideko Araudi bat eduki beharko dute.

b) Barne Araubideko Araudiaren gutxienezko edukia. Barne Araubideko Araudiak honakoa jasoko du, gutxienez:

1) Ematen diren zerbitzuen deskripzioa.

2) Plaza kopurua banako geletan eta plaza kopurua gela bikoitzetan.

3) Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

4) Bizikidetzarako arau zehatzak.

5) Zentroko ordutegiak.

6) Bisitak egiteko, irteteko eta kanpokoekiko komunikazioetarako araubidea.

7) Erabiltzaileen parte-hartzea jardueren plangintzan, bidezkoa denean parte-hartzerako organoak sortuz.

8) Iradokizunak, kekek eta erreklamazioak jasotzeko sistema.

9) Egoitza-zentroaren funtzionamenduan eragina daukaten beste gai batzuk.

19. Artikulua *Jardute egokirako eskuliburua, jarduteko protokoloak eta gorabeheren liburua.*

Egoitza-zerbitzu forala Gizarte Ekintza Sailak onartutako jardute onerako eskuliburuarekin eta jarduteko protokoloekin bat etorri emango da. Halaber, zentro bakoitzean bertako erabiltzaileen inguruan gertatzen diren gorabeherak, osasun arlokoak zein sozialak, jasoko dituen egunkari liburu bat beteko da, berariaz adieraziz pertsona, gorabehera mota, gertatu den ordua, jaso duen langilea eta, halakorik balego, oharrak.

20. Artikulua *Langileak.*

1. Langileen prestakuntza. Egoitzen foru sarean sartutako zentroek langile egokiak izan beharko dituzte, bai kopuruari, zein lanbide-prestakuntzari dagokionez, zerbitzua laguntzaren kudeaketan kalitate-irizpideak aintzat hartuta emateko.

Halaber, eta profesionaltasun irizpidea kontuan hartuta, langile guztiek behar diren ikasketatitulu ofizialak izan beharko dituzte, edo, bestela, lanbide maila eta esperientzia egiaztatuta izan beharko dituzte.

Edonola ere, zentroek mediku bat edukiko dute, ahal bada geriatrian edo/eta gerontologian titulatu, lanaldi partzalean gutxienez. Baita erizaintza zerbitzu bat ere, lanaldi partzalean gutxienez.

2. Langile kopurua. Egoitza-zentroa erabiltzen duten pertsonen laguntza-beharrezan betetzeko langile kopurua (laguntza zuzena ematen duten langileak) zaintzaileek, osasun arloko langileek, jardueretako begiraleak eta gizarte lana eta laguntza psikologikoa ematen duten langileek osatuko dute. Ezin dira laguntza «ratioa» kalkulatzekoan boluntarioak ezta ikasleak ere sartu.

Zentro bakoitzean langileak/egoiliarak gutxienezko proportzioa edo «ratioa» zehazteko honakoak hartuko dira kontuan:

- Zebakitzaille gisa, langileek lan egindako ordu kopuru osoa, lan ezaugarriak(finkoa, aldi baterakoa edo ordezkkoa, lanaldi osoa edo partziala) kontuan hartu gabe, zati ezargarria den lan hitzarmenak, edo, halakorik ez badago, Langileen Estatutuak finkatuta dituen urteko orduak.

- Izendatzaile gisa, egoitzan inoren laguntza behar duten adinekoek betetzen duten plaza kopurua.

Aurreko puntuetan aurreikusitakoa dela bide, langileak/egoiliarak gutxieneko proportzioa edo «ratioa» 0,45ekoa izango da, inoren laguntza behar duten adineko pertsona batek betetako egoitza-plazako.

Edonola ere, laguntza zuzena ematen duten langileen proportzioa plantilla osoaren %65 baino gehiagokoa izan beharko da.

Laguntza «ratio» hau gutxienez joko da; beraz, hobetu ahal izango da, araz ezartzen diren zerbitzuaren antolaketa-arauekin bat etorrira.

21. Artikulua *Inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitza-zerbitzu foralaren prestazioa burutzeko irizpideak.*

Egoitza-zerbitzu forala honako irizpideekin bat etorrira emango da: kalitatea, zorrotasun teknikoa, gardentasuna eta familiei eta erabiltzaileei informazioa; eta egoiliarren garapen integrala eta gizarteratzea izango dira helburuak. Halaber, kontuan hartuko da erabiltzaileak egoera ezberdinetan daudela, zerbitzu ematean parte har dezatela sustatuz eta jardueraren xedea pertsona horiek babestea izanik.

22. Artikulua *Datu pertsonalen babesa.*

Egoitza-zerbitzu forala erabiltzen dutenei buruzko informazioak eta datuek Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen babesa izango dute. Zereginak burutzeaz eta zerbitzua emateaz arduratutako langileak, bai zentro propioetan, zein kontratatuetan eta hitzartutakoetan, lanbide-sekretua gordeko dute zerbitzua ematearen ondorioz euren eskura dauden edo ezagutzen dituzten informazio, agiri eta gai guztien gainean, eta ezin izango dituzte ezagutzen dituzten datu guztiak publiko egin edo besterendu, ezta zerbitzua ematen amaitzen dutenean ere.

IV. TITULUA.

EGOITZA-ZERBITZU FORALAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA.

23. Artikulua *Prezio publikoa.*

Bizkaiko Foru Aldundiak erabiltzaileek egoitza-zerbitzu foralaren finantzaketan izan behar duten partaidetza ezarriko du, zerbitzuaren prestazioari dagokion prezio publikoa/k, ordaintzeko betebeharra arautuz.

Prezio publikoa/k, gutxienez, sortutako kostu ekonomikoak betetzeko moduan ezarriko da/dira.

24. Artikulua *Diruz lagundutako prezio publikoa.*

Aurreko artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe eta egoitza-zerbitzu foralaren izaera soziala kontuan hartuta, koste ekonomikoak baino baxuagoak izango diren prezio publikoak ezarri ahal izango dira, dagokion aurrekontuko aurreikuspenak hartu ondoren.

25. Artikulua *Ordaindu behar duena.*

1. Prezio publikoa ordaindu beharko du inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitza-zerbitzu forala erabiltzen duen pertsonak.

2. Erabiltzailearen absentsia ematen denean edo horrek jarduteko gaitasuna murriztuta daukanean, eta epaileak hala ezarri duenean, haren legezko ordezkariak eta, edonola ere, Epaitegi edo Auzitegi eskudunaren ebazpenez, edo Agintaritza Judizialak horren inguruan xedatutakoaren arabera ordaintzeko betebeharra egotzi zaiolako, erabiltzailearen ondasunen administrazioaz arduratzeko izendatu den pertsonak (edo pertsonak) egin beharko du ordainketa.

26. Artikulua *Prezio publikoaren kudeaketa, likidazioa eta bilketa.*

1. Egoitza-zerbitzu forala emateagatik prezio publikoaren edo publikoen kudeaketa eta likidazioa Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari dagokio. Kudeaketa eta likidazio hau egoitzen foru sarean sartutako zentroengan, propioak edo foru titulartasunekoak zein beste herri administrazioekin hitzartutakoak edo kontratatuak izan, eskuordetu ahal izango da.

2. Egoitza-zerbitzu forala emateagatik prezio publikoaren edo publikoen bilketa Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari dagokio.

Hala ere, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak Gizarte Ekintza Sailarengan eskuordetu ahal izango du diru-bilketarako ahalmena, eta egoitzen foru sarean sartutako zentroei, propioak edo foru titulartasunekoak zein beste herri administrazioekin hitzartutakoak edo kontratatuak izan, diru-bilketako entitate laguntzaile izaera eman ahal izango die ere. Zentro horiek kutxa-zerbitzua emango diete diru-bilketako organoei, besterik ez.

27. Artikulua *Prezio publikoaren galdagarritasuna.*

Prezio publikoari dagokion zorra egoitza-zerbitzua ematen hasten denetik sortuko da.

Prezio publikoa ordaintzea hiler eskatu ahal izango da, ordainketa egin behar duten pertsonak hori egiteko ekonomi gaitasuna ez daukanean izan ezik; kasu horretan, berandutu egingo da zorraren galdagarritasuna, osorik edo zati baten, egoitza-zerbitzuan baja eman arte, sortutako zor horri zor-aitorpenaren betebeharraren eta, hala badagokio, ordainketaren aseguramenduaren menpe egongo delarik.

Prezio publikoaren galdagarritasuna berandutzea eragingo duten baldintzak, zor-aitorpenaren baldintzak eta zorraren bermeak arauz zehaztuko ditu Foru Aldundiak, prezio publikoa eta horren ordainketa arautuz.

Prezio publikoaren galdagarritasunaren berandutzeak ez du berandutza-interesik sortuko inoiz.

28. Artikulua *Zor-aitorpenaren formalizazioa eta bermeak.*

1. Aurreko artikuluak aipatzen duen aitortutako eta berandututako zorra berme pertsonalak edo errealak eratuta segurtatu beharko da.

2. Zor-aitorpena berme errealekin segurtatzen denean eskritura publikoan formalizatuko da eta egoitza-zerbitzu forala erabiltzen duen pertsonaren ondasunak edo eskubideak ez besterentzeko betebeharra bereganatzea eragingo du, baita harenak izan daitezkeen ekonomi edo ondare eskubideei uko ez egiteko betebeharra ere.

29. Artikulua *Zor metatuaren kobrantza.*

1. Zor metatuaren kobrantza erabiltzaileak egoitza-zerbitzuan baja ematen duenetik eskatu ahal izango da. Zorra kobratzeko eskubidearen preskripzio-epaia eska daitekeen zor metatua jakinarazten den egunetik hasiko da zenbatzen.

2. Edonola ere, ordainketa egin behar duen pertsona eta bere jaraunsleek edo kausadunek zorra ordaintzeko eraturako bermeak zor metatuaren zenbateko osoa ordainduta kendu ahal izango dituzte, zenbateko hau bermatutako zenbatekoa baino handiagoa edo txikiagoa izan. Ez bada zor metatuaren zenbatekoa osoa ordaintzen, garantia betearaziko da. Ordainketa partzialak ez du ekarriko garantia kentzea.

30. Artikulua *Ordainketa egin behar duen pertsonaren ondare ondasunen exekuzioa.*

1. Zorra kobratzeko ordainketa egin behar duen pertsonaren ondare ondasunen exekuziora jo behar bada, ez da etxebizitzaren gainean gauzatuko pertsonak, zerbitzuan baja eman duelako, bere erabilerarako behar duenean edo bere ezkontidearen edo izatezko bikotearen ohiko etxebizitza eta bakarra denean -izatezko bikotetzat hartzeko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturakoa izan beharko da- edo erabiltzailearen edozein senidek edo languntzailek erabiltzeko beharrezkoa denean, beti ere egoitzan erabiltzailea sartu izan aurreko azken hamar urtetan bizilagun izan direla ziurtatzen bada erroldatze eta elkarbitzite egiaztagiriaren bidez. Eta jokaera bera erabiliko da etxebizitza berean bizi izandakoen 18 urte edo gutxiago daukaten eta edozein egoeran dauden seme-alaben, edo langabezia edo ikasten dauden 26 urtera arteko seme-alaben edo edozein adineko seme-alaba ezinduen (%33ko edo gehiagoko minusbalotasuna daukatenean) etxebizitza izandakoetan. Hala ere, ondasun eta eskubideen gaineko garantia zenbaki honetan ezarritako inguruabarrak desagertu arte mantenduko da.

2. Halaber, zorra kobratzeko ez da ordainketa egin behar duen pertsonaren garantiaren betearazpena joko, Adinekoen Baloraziorako Batzorde Teknikoak txostena eman ondoren, Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuak apartekotzat jotako egoerak edo baldintzak badaude.

3. Aurreko ataletan aipatutako betearazpena eteteak Foru Administrazioak zorra kobratzeko daukan eskubidearen preskripzio-epe etetea eragingo du, hori erabakitzea eragin zuten inguruabarrak mantentzen diren bitartean.

V. TITULUA. ANTOLAKETA ETA PARTE-HARTZEA

31. Artikulua *Printzipioak.*

Gai honetan lurralde historikoetan ezar daitekeen araupetzearekin bat etorritz, egoitza-zerbitzu publiko foralaren administrazio jarduna honako printzipioen araberakoa izango da: gardentasuna, objektibotasuna, eraginkortasuna, legezkitasuna eta tartean sartutako sektore guztien parte-hartzea.

32. Artikulua *Egoitza-zerbitzu foralaren zuzendaritza, antolaketa, kudeaketa eta kontrolerako administrazio unitatea.*

Adinekoen Zerbitzua edo adinekoen arloan eskumenak dituen zerbitzua izango da, Gizarte Ekintza Sailean horri dagokion Zuzendaritza Orokorraren zuzendaritzapean, hurrengo hauetarako eskumena duen administrazio unitatea: inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen foru zerbitzu publikora sartzeari tramitatu eta kudeatzea, baita zerbitzu horren eta zerbitzu hori ematearen laguntzako kudeaketa teknikoaren zuzendaritza, antolaketa, kudeaketa eta erregulartasunez kontrolatzeari dagokien lanak gauzatzea ere. Era berean, unitate horrek eskumeneko izango ditu hurrengoetatik eratorritako gaiak: egoitzan alta ematea edo egoitzaratuta egotea, prestazioen kalitatea eta zerbitzuaren erabiltzaileekin loturiko leku-aldatze eta bajak, beti ere ez badira ordenamendu juridikoak erabiltzaileari laguntza emateko unitateari aitorturikoak -iradokizunak eta kexak- edo Autonomi Erkidegoko araudiak Ikuskaritzari aitorturikoak.

33. Artikulua *Zentroen Batzorde Iraunkorra.*

Foru dekretu bidez eta organo aholku-emaile bezala, Zentroen Batzorde Iraunkor bat eratuko da, egoitzen foru sarea osatzen duten zentro guztietako ordezkariak izango dituen. Bere eginkizunak eta osaketa eraketako foru dekretu horretan arautuko dira eta eskumen aholku-emaileak onartu behar zaizkio zerbitzuaren laguntzako kudeaketa teknikoari eta zentroen funtzionamenduaren antolaketari dagokienez, baita aspektu horien inguruko arau orokorrak egiterakoan ere. Era berean, Zentroen Batzorde Iraunkor hau zentroek zerbitzuaren laguntzako kudeaketa teknikoan parte hartzeko organo bat izango da; horrela, batzorde honen bitartez, gai honen inguruan zentroetako funtzionamenduaz arduratzen diren pertsonak planteatu ditzaketen proposamenak eta iradokizunak bideratuko dira.

34. Artikulua *Adinekoen Baloraziorako Batzorde Teknikoa.*

Foru dekretu bidez Adinekoen Baloraziorako Batzorde Tekniko bat eratuko da, kide anitzeko informazio organo bezala, eztabaidarako eta erabakiak hartzerakoan laguntza emateko. Eztabaida-eskumenen barruan laguntza beharri buruzko eta egoitza-zerbitzu publiko foraleko zentroetan sartzeari buruzko balorazio-proposamenak daude, egoitza-zerbitzu forala erabiltzen dutenen egoeraren inguruko edozein proposamen, adinekoen egoerari eta bizi-kalitateari buruzko aholkularitza, baita egoitza-zerbitzu publiko foralaren funtzionamenduari zerikusia daukan beste edozein gairi buruzko proposamenak ere.

35. Artikulua *Iradokizunak eta kexak.*

1. Egoitza-zerbitzu forala erabiltzen dutenek zerbitzuaren funtzionamenduan parte hartzeko eskubidea daukate, ezartzen diren ordezkari-organoen bidez eta iradokizunak eta kexak aurkeztuz, dagokion foru dekretuak zehazten duen prozedura erabilia,

indarrean dagoen antolamendu juridikoan xedatutakoarekin bat etorritz.

2. Egoitzen foru sarean sartutako egoitzak, foru titulartasunekoak izan, zein publiko hitzartuak edo pribatu kontratatuak izan, erabiltzaileari laguntza emateko unitate bat edukiko dute, beste batzuen artean, eginkizuntzat erabiltzaileek edo euren familiek planteatzen dituzten iradokizunak jasotzea eta zentroaren zuzendaritzara, edo, hala badagokio, egoitza-zerbitzu forala kudeatzeko eskumena daukan Gizarte Ekintza Saileko zerbitzura helaraztea izango duena. Erabiltzaileari laguntza emateko unitate honek erabiltzaileek aurkeztutako kexak ere jasoko ditu eta lehen auzialdian ebaztuko ditu. Hala ere, erabiltzaileek kexa Gizarte Ekintza Saileko erabiltzaileari laguntza emateko administrazio-unitatean zuzenean

aurkeztu ahal izango dute edo bigarren auzialdian, zentroko arreta-unitatean aurkeztutako kexari eutsi laguntza emateko administrazio-unitate horretan.

3. Edonola ere, zentro bakoitzeko erabiltzaileari laguntza emateko unitatean zein zuzenean Gizarte Ekintza Saileko Erabiltzaileari Laguntza emateko Administrazio-Unitatean aurkeztutako kexak eta horien ebazpenak foru zerbitzua kudeatzeko eskumena daukan Gizarte Ekintza Saileko zerbitzuari jakinarazi beharko zaizkio. Laguntzako alde teknikoak dela eta, egoitza-zerbitzuaren prestazioaren inguruan aurkeztutako kexen ebazpenek egoitza-zerbitzua kudeatzeko eskumena daukan Gizarte Ekintza Saileko zerbitzuaren txostena beharko dute, alde aurretik eta nahitaez.

36. Artikulua *Erreklamazioak.*

Kexak aurkezteak ez du ordeztan administrazio errekursoaren edo, halakoa jar daitekeenean, jurisdikzio-errekursoaren prozedura eta ez du etengo tramitaziorako edo indarrean dagoen antolamendu juridikoak erreklamazioak aurkezteko xedatzen duen beste edozein bide erabiltzeko ezarritako legezko epeen zenbaketa.

VI. TITULUA. **IKUSKAPENA EGOITZA-ZERBITZU FORALEAN.**

37. Artikulua *Ikuskapen-lana.*

Ikuskapen-jardunaren eginkizuna Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumeneko gizarte zerbitzuak arautzen dituen arautegia betetzen dela kontrolatzea izango da. Horretarako ikuskapena egiteko urteko plangintza bat prestatuko da, egoitza-zerbitzu foralaren funtzionamendu egokia bermatuko duena. Zentro guztiak urtero ikuskatzen direla bermatuko da.

Foru Aldundiak eginkizun honen betearazpena arautu ahal izango du, antolamendu juridikoan xedatutakoarekin bat etorrita, foru dekretu bidez onartutako antolaketa gaineko erregelamenduaren bidez.

38. Artikulua *Egoitza-zerbitzu foraleko zentroetako arduradunak ikuskapen-jardueraren aurrean.*

Zentroetako erabiltzaileek edo euren familiek aurkeztutako salaketek edo, hala denean, kexek Ikuskaritzaren esku-hartzea ekarriko dute, Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legean edo hori aldatu, ordeztu edo garatzen duen arautegian, jasota dagoen arau-hausteetarikoa bat gertatu den zehazteko. Ikuskapen zerbitzuak berehala helaraziko dizkio egoitza-zerbitzu foralaren kudeaketaz arduratzen den administrazio unitateari jasotzen dituen salaketak eta kexak, egindako jarduketan berri emanez eta behar diren txostenak eskatuz.

Egoitza-zerbitzu foralaren arduradunak, horien titularrak edo une bakoitzean zentroaren funtzionamenduaz arduratzen diren langileek behar bezala egiaztatutako foru ikuskaritzaren sarrera erraztu beharko dute, baita eskatzen zaien laguntza eta dokumentazio guztia eman ere, indarrean dagoen arautegiarekin bat etorritik. Edonola ere, ikuskapen-jardunak tartean hartzen dituen pertsona fisikoek eta juridikoek entzunak eta informatuak izateko daukaten eskubidea eta defentsarako eskubidea bermatu beharko da.

39. Artikulua *Ikuskaritzaren esku-hartzeak.*

Ikuskapen-lanak gaian eskumena daukan foru sailak behar bezala kreditatutako pertsonen burutuko dituzte. Horretarako, euren ezagutzengatik eginkizun hau betetzeko egokiak diren pertsonak kreditatutako dira, ikuskapen lan honen eraginkortasuna bermatzeko behar besteko kopurua ezarritik.

Ikuskapena egiteko kreditatutako pertsonen, zeregin hori betetzerakoan, autoritate publikoaren izaera edukiko dute eta lan hori betetzeko beste administrazio edo entitate publiko edo pribatuaren laguntza eskatu ahal izango dute, baita pertsona fisikoena ere, ezar daitekeen arautegian xedatutakoarekin bat etorritik. eskuhartzen duten pertsonen, bere jardunaren eta lanaren garapenaren ondorioz ikuskaritzak ezagutzen dituen gaitan, lanbide sekretua gorde beharko dute.

Ikuskaritzaren jarduna herri administrazioen jardunbiderako lege ezarritako printzipioak gordez egin beharko da, bereziki gardentasuna, objektibotasuna eta inpartzialtasuna. Ikuskaritzak egiten dituen aktak ziurtzat joko dira, espedientean kontrakoa esaten denean edo frogatzen denean izan ezik. Ikuskaritzak, hala gertatzen denean, fiskaltzari helarazi beharko dizkio horren esku-hartzea eska dezaketen egoerak. Era berean, beste administrazio batzuei jakinarazi beharko dizkie, euren larritasunagatik, horien esku-hartzea behar dezaketen egoerak.

Edonola ere, Ikuskaritzak bere ikuskapen-jardunaren emaitza jakinarazi beharko dio salaketa jarri duen pertsonari.

40. Artikulua *Kautelazko neurriak.*

Ikuskaritzak egokitzen jotzen dituen kautelazko neurriak hartzea proposatu ahal izango dio foru-autoritate eskudunari, erabiltzaileen osasunerako arrisku larria dagoenean edo egoitza-zerbitzu foralaren zentroei ezarri ahal zaien arautegiaren ez-betetze larria gertatzen denean. Hartzen diren neurriek heinekotasunaren printzipioa gorde beharko dute, iraupenari zein hartutako neurri motari dagokienez.

Kautelazko neurriak ez dira zehapenak. Dagokion zehapen-espeditentea neurriak eragin zituzten gertaerak arau-hauste ere izan daitezkeenean tramitatu ahal izango da. Kautelazko

neurriak alde zuzenetik tartean hartzen dituzten pertsonak entzun ondoren hartu beharko dira, arrisku egoera edo arautegiaren ez-betetzea oso larriak izanda berehalako esku-hartzea eskatzen dutenean izan ezik. Tarteko den pertsonak azken kasu honetan egin ditzaketen alegazioak kontuan hartu beharko dira erabakitako kautelazko neurriak aldatzen badira.

XEDAPEN GEHIGARRIAK.

Lehenengoa

Foru arau hau indarrean jartzen denean, adinekoak foru egoitza publikoetan edota egoitza itundueta sartzeko sistema eta adinekoak besteren egoitzazko gizarte zerbitzuetan sartzeko banakako laguntza ekonomikoak nola eman araupetu dituen apirilaren 3ko 63/2001 Foru Dekretuan xedatutakoaren itzalpean, egoitza-zentroetan sartutako pertsonak zor-aitorpenaren betebeharretik salbuetsita egongo dira.

Bigarrena

Foru arau hau indarrean jartzen denean, adinekoak foru egoitza publikoetan edota egoitza itundueta sartzeko sistema eta adinekoak besteren egoitzazko gizarte zerbitzuetan sartzeko banakako laguntza ekonomikoak nola eman araupetu dituen apirilaren 3ko 63/2001 Foru Dekretuan xedatutakoaren itzalpean, laguntza ekonomikoaren onuradun diren pertsonen apirilaren 3ko 63/2001 Foru Dekretu horretan xedatutakoa ezarriko zaie, besteren egoitzazko zerbitzu horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen foru sarean sartzeko ez badira edo ezin badira sartu. Foru dekretu horrek indarrean jarraituko du pertsona horientzat, onuradun direnako laguntza ekonomikoak ematea eragin zuten baldintzak mantentzen diren bitartean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Indargabetuta geratuko dira foru arau honekin bat ez datozen edo bertan ezarritakoaren aurkako lerrun bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Foru arau honetan xedatu ez denari dagokionez Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legean eta hori garatzeko emandako arautegian ezarritakoa beteko da.

AZKEN XEDAPENAK.

Lehenengoa.

Foru Aldundiak, Gizarte Ekintza Sailak eta Ogasun eta Finantza Sailak proposatuta, foru arau hau betearazteko dekretuak onetsiko ditu. Bereziki, egoitza-zerbitzu forala egonaldi iraunkorrean nola eman eta horren ekonomi ordaina eta egoitza zerbitzu forala aldi baterako egonaldian nola eman eta horren ekonomi ordaina arautuko dituzten dekretuak emango ditu. Dekretu horiek 2006ko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean.

Bigarrena

Foru Arau hau 2006ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.



Dokumentu honen helburua da bakarrik informazioa ematea, ez du inolako balio juridikorik.